

IRAKASKUNTZA-GIDA 2016/17

Ikastegia 135 - Hezkuntza eta Kirol Fakultatea. Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzi **Zikl.** Zehaztugabea

Plana GDEPOR10 - Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietako Gradua **Ikastaroa** 4. maila

IRAKASGAIA

25805 - dfvafv

ECTS kredituak: 12

IRAKASGAIAREN AZALPENA ETA TESTUINGURUA ZEHAZTEA

DESKRIPTOREA

Kanpoko praktikek esku-hartzea edo kudeaketa benetan egin behar den egoeretan lortutako gaitasunak aplikatzea ahalbidetzen dute, harrerako erakundeko instruktoreak proposatutako programa baten arabera. Ildo horretatik, erakundearen espezialitate-arloaren arabera, gaitasunak jarraian azalduko diren ezagutza espezifikoa eta komunei dagozkienak izango dira.

GAITASUNAK / IRAKASGAIA IKASTEAREN EMAITZAK

OINARRIZKO GAITASUNAK

MEC2 Ikasleek eskuratutako ezagutzak beren lanean edo bokazioan aplikatzen jakitea, modu profesionalean, eta argudioak emanez eta defendatuz, eta beren ikasketa arloaren barneko arazoak konponduz, agerian uzten diren gaitasunak edukitzea.

GAITASUN OROKORRAK

G019 Lidergorako, pertsonen arteko harremanetarako eta taldean lan egiteko trebetasunak garatzea.
G020 Egoera berrietara egokitzeko, arazoak konpontzeko eta modu autonomoan ikasteko gaitasunak garatzea.
G021 Lan arloko bikaintasun eta kalitate ohiturak garatzea.
G022 Lana behar bezala egiteko nahitaezkoak diren printzipio etikoak ezagutzea, eta horien arabera jardutea.

GAITASUN ESPEZIFIKOAK

GE1. Gorputz eta kirol jardueren eta jolas jardueren programen planifikazioa, antolaketa, zuzendaritza eta kontrola testuinguruan sartu, buruzagitzaren, pertsonen arteko harremanen eta talde-lanaren trebetasunak garatuz.
GE2. Laneko egoeretan gorputz eta kirol jardueren eta jolas jardueren programen planifikazioan, antolaketan, zuzendaritzan eta kontrolean lagundu eta esku hartu, profesional batek gainbegiratuta, bikaintasuneko eta kalitateko ohiturak garatuz, eta lanbide-jardun egokirako beharrezkoak diren printzipio etikoen barruan arituz.
GE3. Txosten arrazoitu bat eginez gogoeta kritikoa egin praktikan eskuratutako lanbide-esperientziari buruz. Alde horretatik, esku-hartzea beharizan sozialei, helburu espezifikoei eta testuinguruaren ezaugarriei, esku-hartzearen arloaren kalitate-estandar propioei eta lanbide-jardun egokirako beharrezko printzipio etikoiei nola egokitzen zaien baloratu beharko da, eta hobetzeko alternatibak proposatu beharko dira.

EDUKI TEORIKO-PRAKTIKOAK

Praktikak egiteko lau eremu edo arlo daude:

- Jarduera Fisikoa eta Ongizaterako Osasuna
- Kirol Entrenamendua
- Kirol Gestioa eta Aisialdia
- Berrikuntza Teknologikoa eta Irakaskuntza

Metodologia:

Metodologia aldetik, irakasgaia hainbat prestakuntza-jardueraren bitartez tratatuko da. Jarduera horiek, hainbat eratakoak izango dira, praktiken izaeraren nahiz helburu batzuk eta besteak lantzen direneko testuinguruaren arabera:

• Bilera eta/edo eskola presentzialak, Fakultateko tutorearekin aurretiaz ezarriak; horietan, orokorrean, irakasgaiaren barruan lantalde berari dagozkion ikasle guztiak egingo dira. Egoera horiek egokiak dira eztabaida zuzenduetarako, gogoeta-lanetarako, kasu praktikoen azterketarako, eta antzeko jardueretarako.

• Zentro edo erakundean jardutea. Jarduerak, instruktoreak ezartzen duenaren arabera egingo dira, baina ikaslearen lanaren ardatza, batik bat, Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietako Graduatuaren lanpostu horren etorkizuneko lanbide-jardunaren funtsezko elementuak izango dira.

-Ikasleak tarteko jarraipen-txostena egingo du, ahal dela praktiken iraupenaren erdia igaro ondoren. Tutoreak eskatzen dionean egin beharko du, azken txostenaren eranskin berberaren arabera. Txosten horretan, prestakuntza proiektuaren garapenaren balorazioa agertuko da.

-Orientazio modura ezartzen da ikasleek gutxienez 110 ordu presentzial (11 kreditu) eman beharko dituztela praktikak

egin behar dituzten erakundean, eta gutxienez beste 10 ordu (kreditu bat) Fakultateak esleitutako tutorearekin egin beharreko bilera eta tutoretzetan.

Praktiketan LAU FASE egongo dira:

- Harremanetan jarri
- Behatu
- Esku hartu
- Ebaluatu

METODOLOGIA

Irakasgai hau egin ahal izateko, nahitaezko baldintza izango da titulua lortzeko beharrezkoak diren kredituetatik 150 gutxienez gaindituta izatea.

Nolanahi ere, irakasgai hau Ikasleen Kanpoko Praktika Akademikoen Araudiak arautzen du. Araudi hori 2012ko irailaren 27ko Gobernu Kontseiluan onartu zen eta 2012ko azaroaren 12ko (astelehena) EHAAn argitaratu zen.

IRAKASKUNTZA MOTAK

Eskola mota	M	S	GA	GL	GO	GCL	TA	TI	GCA
Ikasgelako eskola-orduak									
Ikaslearen ikasgelaz kanpoko jardueren ord.									

Legenda: M: Maistrala S: Mintecia GA: Gelako p. GL: Laborateiko p. GO: Ordenaailuko p.
GCL: P. klinikoak TA: Tailerra TI: Tailer Ind. GCA: Landa p.

EBALUAZIO-SISTEMAK

- Ebaluazio jarraituaren sistema
- Ebaluazio mistoaren sistema
- Azken ebaluazioaren sistema

KALIFIKAZIOKO TRESNAK ETA EHUNEKOAK

- Praktikak (ariketak, kasuak edo buruketak) % 80
- Banakako lanak % 20

OHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA

Irakasle tutoreak erabakiko du ikasleen azken kalifikazioa. Horretarako, kontuan hartuko du instruktorearen amaierako txostena (IV. eranskina), baita ikasleak entregatutako jarraipen-txostena eta memoria (V. eranskina) ere.

Azken kalifikazioaren % 80 instruktorearen amaierako txostenaren mendean egongo da. Gainerako % 20a, berriz, ikasleak entregatutako txosten eta memoriaren mendean egongo da.

Irakasgaia gaindituztat eman ahal izateko, alde bien puntuazioa gehieneko kalifikazioaren % 50etik gorakoa izan behar da.

Instruktoreak praktiketako ikasleari buruzko amaierako txostenean bete behar duen balorazio-galdetegian kontuan hartu behar da irakasgai honetan garatu beharreko gaitasunak noraino bete diren.

Tutoreek, praktiken izaera eta arloa kontuan hartuta, instruktorearen amaierako txostenean (IV. eranskina) definitutako gaitasunen adierazle edo errubrikak aldatu ahal izango dituzte, egindako praktiken berezitasunetara egokitzeko. Nolanahi ere, egindako aldaketen berri emango diete zerikusia daukaten ikasle guztiei, praktiken hasieran.

Praktiken aldian denboraren % 20 baino gehiagoan agertu ezean, irakasgai horretan kalifikazio negatiboa jarriko da.

EZOHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA

NAHITAEZ ERABILI BEHARREKO MATERIALAK

BIBLIOGRAFIA

Oinarrizko bibliografia

- IGLESIAS, M.L. et alii (arg.). El prácticum como compromiso institucional: los planes de prácticas. Santiago de Compostela: Unidixital, 2005.
- MARTÍNEZ MARTÍN, Rafael. La inserción laboral de los universitarios: evaluación de las prácticas en empresas en la Universidad de Granada. Granada: Granadako Unibertsitatea, 2002.
- MOLINA, M^a José eta Ana M^a Rico-Martín (koord.). Las prácticas de enseñanza como instrumento de formación. Madrid: Síntesis, 2012.

Gehiago sakontzeko bibliografia

Aldizkariak

Interneteko helbide interesgarriak

OHARRAK